


ENPRESAK SORTZEKO ARAUTEGIA



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

[...](e)ko Gobernu Kontseiluak onartua

AURKIBIDEA

ATARIKOA	4
1. Arautegiaren xedea eta aplikazio eremua	5
2. Definizioa	5
II. TITULUA. SPIN-OFFen ESPARRU JURIDIKOA	6
I. KAPITULUA. EHUn SPIN-OFFak SORTZEKO ETA JADA SORTUTAKOETAN PARTE HARTZEKO MODUA	6
3. Baimen eskaera	6
4. EHUn spin-off proiektuaren analisia	7
5. Spin-offa baimentzeko modua	7
6. Spin-offaren eratzea	8
II. KAPITULUA. SPIN-OFFean PARTE HARTZEA	8
7. EHUK spin-offaren kapital sozialean parte hartzea	8
8. EHUn parte-hartzea administrazio organoan	8
9. Bazkideen Ituna	9
10. Parte-hartzearen segimendua	9
III. KAPITULUA. EMAITZEN TRANSFERENTZIA	10
11. EHUn Emaizen Transferentziaren Kontratua	10
IV. KAPITULUA. SPIN-OFFetik IRTETEA	10
12. EHUn irteteko eskubidea	10
13. Spin-offaren partaidetzaren transmisioa	10
III. TITULUA. EHUKO LANGILEAK SPIN-OFFetan PARTE HARTZEA	11
14. Spin-offean aritzeko baimena	11
15. EHUKo langileak spin-offean parte hartzeko araubidea	11
16. EHUn emaitzak babestea	11
IV. TITULUA. EHUKO KIDEEK EDO EGRESATUEK SUSTATUTAKO START-UPak	12
17. EHUn start-up deklarazioa	12
18. EHUn ekintzailatza prestakuntza eta laguntza programa	12
19. EHUn inkubagailuan sartzea	12
20. Lankidetzak kontratuak	13
21. EHUn Spin-off erregistroa	13
22. EHUn spin-offen irudi korporatiboa	13

23.	EHUko ikasleak kontratatzea.....	14
24.	Arautegi honetan aurreikusitako organoak.....	14
XEDAPEN GEHIGARRIAK		14
Lehenengoa. Aplikatu behar den araudira egokitzea		14
Bigarrena. Indarrean sartzea.....		14

ATARIKOA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (aurrerantzean, EHU) Estatutuen arabera, erakundearen helburuetako bat da: *"Jakintza sortu, kritikatu eta zabaltzea eta jakintzaren aurrerabidea eta gizartearen garapena sustatzea, ikerketaren bitartez eta ikerketaren emaitzak gizarteratuz."* Alde horretatik, ikerketa —ezagutza sortzeko eta gizarteratzeko baliabidea— EHUn funtsezko eginkizunetako bat da, irakasleen eta ikertzaileen eskubidea, bai eta betebeharrak ere, haien arduraldiaren eta ikasketa mailaren arabera.

Hori horrela, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak dioenez: *"Unibertsitateek enpresak nahiz teknologia guneak sor ditzakete, edo, bestela, sortzen parte hartu; irakasleek eta ikertzaileek horien jardueretan parte hartu ahal izango dute xede hauekin: a) Unibertsitateko ikerketa sustatu eta horren alde egiteko, eta ikerketaren emaitzak zabaltzeko. b) Enpresetan kalitatearen eta berrikuntzaren aldeko jarrerak bizteko. c) Teknologia-hobekuntzarekin eta berrikuntzarekin, enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko."*

Ezagutzan oinarritutako enpresak sustatzea lehentasuna izan da botere publikoentzat azken urteetan, eta legedia berrikustea ekarri du horrek, muga eta murrizketa jakin batzuk kentzeko unibertsitate eta ikerketa ekosistema publiko osoari aplikatzen zaien arauditik. Zehazki, Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak eta Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legeak (irailaren 5eko 17/2022 Lege bidez aldatua) mekanismo batzuk arautu dituzte unibertsitateko kideen mugikortasuna errazteko eta unibertsitate ikerketaren emaitzen transferentzia azkartzeko.

Egungo testuinguruan, kontuan harturik EHUko ikertaldeak eta sailen etengabeko ezagutza eta teknologia sorkuntza, komeni da politika propio bat edukitzea, ekintzailatza arautu eta bultzatzeko, helburua izanik bultzada ematea, bai irakasle-ikertzaileek emaitzen ustiapenean duten inplikazioari, bai gizarteak unibertsitatean sortutako ezagutza berriak eskuratzeko aukerari.

Jarduera horiek bultzatzeko, arautegi bat behar da, arautzeko bai unibertsitateko kideek eta egresatuek EHUn enpresak sortzeko modua, bai enpresa horietan parte hartzeko baldintzak. Hori dela eta, Gobernu Kontseiluak onspena eman dio EHUn enpresak sortzeko arautegi honi.

I. TITULUA. SARRERA

1. Arautegiaren xedea eta aplikazio eremua

Arautegi honen xedea da ezartzea EHUren baitan sortutako enpresa proiektuei aplikatu beharreko araubide juridikoa, unibertsitateak berak eta unibertsitateko kideek enpresa horietan parte hartzeko formulak, bai eta proiektu horiekiko harreman esparrua ere.

2. Definizioa

2.1 Arautegi hau aplikatuko zaie EHUK onartutako edo halakotzat aitortutako enpresa proiektu mota hauei:

- a) **Spin-offa:** EHUK sustatutako edo ikerketako langileek eskatuta sortutako enpresa, helburua izanik unibertsitatearen emaitzak ustiatzea. Hala badagokio EHU enpresa hauek sortu edo parte hartu ahal izango du.
- b) **Start-upa:** EHUKo kideek edo egresatuek partaidetutako enpresa, unibertsitatearen emaitzak ustiatzeko helbururik gabe.

2.2 Arautegi honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) **Ikerketako langileak:** EHUKo ikertzaileak, teknikariak eta kudeatzaileak.
- b) **Ikertzaileak:** kasu bakoitzean behar den titulazioa izanik ikerketa jarduera bat egiten duten EHUKo langileak, jarduera hori ulertuta modu sistematikoan eginiko sormen lan gisa, ezagutzen bolumena handitzeko —barne harturik gizakiari, kulturari eta gizarteari buruzkoak—, ezagutza horien bidez aplikazio berriak sortzeko, eta ezagutza horiek transferitu eta zabaltzeko.
- a) **Kudeatzaileak:** ikerketarekin, garapenarekin eta ezagutzaren eta berrikuntzaren transferentziarekin loturiko kudeaketa, administrazio eta zerbitzu funtzioak betetzen dituzten EHUKo langileak.
- b) **Teknikariak:** ikerketan laguntzeko langileak eta ikerketan, garapenean eta berrikuntzan lankidetzat eta asistentzia funtzioak dituzten administrazioko langileak.
- c) **Egresatuak:** titulua aurreko bost urteetan lortu duten edo enpresa sortzeko edo enpresan aritzeko unean gehienez 35 urte dituzten EHUKo tituludunak.
- d) **EHUKo langileak:** EHUKo irakasle-ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.
- e) **Unibertsitateko kideak:** EHUKo ikasleak eta langileak.
- f) **Emaitzak:** ikerketako langileek EHUn akademia, irakaskuntza eta ikerketa jardueren ondorioz garatutako edo lortutako teknologia, ezagutza, prozesu edo emaitza oro.

II. TITULUA. SPIN-OFFen ESPARRU JURIDIKOA

I. KAPITULUA. EHUn SPIN-OFFak SORTZEKO ETA JADA SORTUTAKOETAN PARTE HARTZEKO MODUA

3. Baimen eskaera

- 3.1 EHUKo Ikerketako langileek, baldin eta interesa badute i) EHUren emaitzen ustiapen komertzialerako spin-off bat sortzeko edo ii) unibertsitateak EHUren emaitzen ustiapen komertziala xede duen jada sortutako enpresa batean parte hartzeko, dagokion baimen eskaera aurkeztu beharko dute, informazio honekin:
- a) Bazkideak/talde ekintzailea, EHUrekin duten lotura aipatuta, eta bateraezintasunen araudia betetzen dutela dioen adierazpena.
 - b) Spin-off proiektuaren baitan ustiatu nahi diren EHUren emaitzen deskripzio memoria, edo emaitzak transferitzeko unibertsitatearekin aurretik sinatutako kontratuaren kopia. Memoriak spin-offak EHUren kode etikoa betetzen duela adierazten duen deklarazioa jaso beharko du.
 - c) Unibertsitateak spin-offa sortzeko edo partaidetzeko eskaera.
 - d) EHUKo Ikerketako langileak diren eta spin-offean aritu nahi duten talde ekintzaileko kideen baimen eskaerak:
 - Bateraezintasunen araudia ez aplikatzeko eskaera (53/1984 Legea), administrazio kontseiluetako edo zuzendaritza organoetako kide izateari eta enpresen kapitalaren % 10etik gorako partaidetzari dagokienez.
 - Spin-offean zerbitzuak emateko bateragarritasun baimena.
 - e) Honako hauek bilduko dituen enpresa plana:
 - Bideragarritasun teknikoko azterlana, kontuan harturik arriskuen prebentzioa, ingurumen kudeaketa... bezalako gaiak, indarreko legediaren eta arautegi espezifikoaren arabera.
 - Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioko azterlana, honako hauek ebaluatuta: proiektuaren potentzial ekonomikoa, finantzaketa alternatiba bideragarriak, beharrezko inbertsio aurreikuspenak, eta lehen urteetako salmenten, gastuen eta kutxa fluxuen aurreikuspena, aurreikusitako errentagarritasun tasa adierazita.
 - Bideragarritasun estrategikoko azterlana, proiektuaren abantaila lehiakorak azalduta, arrakastaz txertatzeko jomuga duen merkatuan.
 - f) EHUren inkubagailuak erabiltzeko proposamena, hala badagokio.
 - g) Enpresa jada sortu bada:
 - Enpresa eratzeko eskritura.
 - Konpainiaren Estatutu Sozialak eta enpresako bazkideek sinatutako Itun Parasozialak.
 - Zerga Agentziaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiriak, enpresak bi administrazioekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak.
 - Azken lau ekitaldietako Urteko Kontuak eta Memoria, halakorik egonez gero.

- 3.2 Talde ekintzaileko kideren batek lan edo estatutu lotura badu beste erakunde publiko batekin, dagokion baimena eskatu beharko dio, parte hartzeko, erakunde horretan aplikatzen den araubidearen arabera.

4. EHUn spin-off proiektuaren analisisia

- 4.1 Behin eskaera aurkeztuta, Ezagutza Transferitzeko Bulegoak (ETB) aztertuko du enpresa proiektuaren bideragarritasuna; bereziki, ezagutzari, merkatuari eta finantza arloari buruzko gaiak.
- 4.2 Analisi horretan oinarrituta, ETBk Justifikatzeko Memoria bat idatziko du, honako hauek barne hartuta:
- a) Ezagutzan oinarritutako enpresaren izaera zehaztea, oinarrituta ustiari nahi diren emaitzen ezaugarrietan eta enpresak garatu beharreko jardueran.
 - b) Unibertsitateak enpresan parte hartzeko proposamena, hala badagokio.
 - c) Bateriaezintasunei, spin-offean zerbitzuak emateari i buruzko araudia ez aplikatzeko eskaerak proposatzea.
 - d) Hala badagokio, EHUn inkubagailuak instalatzea proposatzea.
- 4.3 Analisi hori egiteko, ETBk behar duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, eta barneko nahiz kanpoko aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, egoki irizten dion neurrian.
- 4.4 Balorazioa positiboa denean, eskaera eta ETBren Justifikatzeko Memoria bidaliko dira transferentziaren eta ekintzailatzaren arloan eskumena duen errektoreordetzara.

5. Spin-offa baimentzeko modua

- 5.1 Transferentzia eta ekintzailatzaren arloko eskumena duen Errektoreordetzako titularrak, dagokion administrazio-espedientea izapidetu ondoren, zeinetan eragindako unibertsitate-organo edo egituren txostenak bilduko baitira, eskaera eta espedientea Gobernu Kontseiluari helaraziko dizkio. Gobernu Kontseiluak ebaluatuko du, eta balorazioa positiboa bada, sorrera edo partaidetzarako proposamena onartuko du, zeinak, hala badagokio, EHUn alde egokitzen jotzen dituen kontraprestazioak jasoko baititu (aurrerantzean, "Proposamena"), eta dagokion baimena emango die ikerketa-langileei.
- 5.2 Gobernu Kontseiluaren proposamena bidaliko da EHUn Gizarte Kontseilura. Honek aztertu egingo du eta, ados egonez gero, baimena emango du spin-offa sortzeko eta EHUK edo haren ikertzaileek parte hartzeko, edota EHU jada sortutako spin-offetan parte hartzeko.

- 5.3 Gobernu Kontseiluak oniritzia eman ahal izango dio spin-off proiektuari, EHUren akzio partaidetzarik gabe. Kasu horretan, emaitzak transferitzeko kontratua sinatuko dute unibertsitateak eta spin-offak.
- 5.4 Gizarte Kontseiluaren onesteko erabakia helaraziko zaie eskatzaileei eta dagozkien organo eta zerbitzu administratiboei, akordioa ezartzeko behar diren alderdi formal guztiak gara ditzaten.
- 5.5 Gobernu Kontseiluak eta Gizarte Kontseiluak aipatutako erabakiak hartzeko eskumenak eskuordetu ahal izango dizkiete espresuki horretarako mandatua duten batzorde delegatuei.

6. Spin-offaren eratzea

- 6.1 EHUren partaidetza duten spin-offeko bazkide guztiek Bazkideen Ituna sinatu beharko dute, spin-offa sortu aurretik edo aldi berean, edo EHU haren kapital sozialean sartzen den une berean.
- 6.2 Spin-offaren eratzeak alde aurretik Transferentzia Kontratua formalizatzea ekarriko du; bertan arautuko dira EHUren Emaizten transferentzia spin-offaren alde nola gauzatuko den zehazten duten baldintzak.

II. KAPITULUA. SPIN-OFFean PARTE HARTZEA

7. EHUK spin-offaren kapital sozialean parte hartzea

- 7.1 Unibertsitateak spin-offaren kapital sozialean parte hartzeko EHUren baimenak ezarriko du nola eta zer baldintzatan eskuratuko den partaidetza.
- 7.2 EHUren ekarpena, spin-offaren kapital sozialean duen partaidetza bere gain hartzeko, izan daitezke diru ekarpen zuzenak edo ondasun edota eskubideen ekarpenak; hala nola spin-offaren jarduerarako behar diren EHUren emaitzak, merkatuko balioaren arabera balioetsiak.
- 7.3 EHUK spin-offean duen partaidetza unibertsitateak berak hartu ahal izango du bere gain zuzenean, edo zeharka, unibertsitateak erabat kontrolatutako erakunde baten bidez.
- 7.4 EHUK partaidetutako enpresek urtero bidali beharko dizkiote kontuak ETBri, bai eta kudeaketa txosten bat eta lege eskatutako beste edozein dokumentu ere.

8. EHUren parte-hartzea administrazio organoan

- 8.1 EHUK spin-offaren kapital sozialean parte hartzeak berekin ekar dezake unibertsitatearen ordezkariak egotea administrazio organoan.

- 8.2 Unibertsitateak bere gain izango du spin-offaren administrazio organoan dituen ordezkariak izendatzeko eta, hala badagokio, ordezkatu edo kargutik kentzeko ahalmena. Indarrean dagoen araudiaren arabera, izendapenak bateragarritasun baimena beharko du.
- 8.3 Uko eginez gero spin-offaren administrazio organoan ordezkari bat izendatzeari, EHUK beretzat gordeko du organo horretan behatzaile bat izendatzeko ahalmena, eta behatzaile horrek bileretan parte hartu ahal izango du, hitzarekin baina botorik gabe.
- 8.4 EHUK hazi kapitaleko funts bat sortu ahal izango du bere aurrekontuekin edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin eginiko akordioekin, enpresak sortzen eta finantzatzen laguntzeko.

9. Bazkideen Ituna

- 9.1 EHUn partaidetza duten spin-offen bazkide guztiek Bazkideen Itun bat sinatu beharko dute spin-offa sortu aurretik edo sortzearekin batera, edo EHU haren kapital sozialean sartzean. Itun horretan zehaztuko dira, besteak beste, spin-offaren administrazio eta gobernu arauak, eta EHU spin-offaren bazkide gisa babesteko mekanismoak, kontuan harturik arautegi honetan, araudi aplikagarrian eta Gizarte Kontseiluaren baimen akordioan ezarritakoa.
- 9.2 Bazkideen Itunak aintzat hartuko ditu jardunbide egokiak horrelako kontratuetan ohikoak diren interes publikoaren defentsan.
- 9.3 Bazkideen Kontratuak jasoko du bazkide berriek itunarekin bat egiteko betebeharra, EHUK espresuki kontrakoa onartu ezean.

10. Parte-hartzearen segimendua

- 10.1 EHUK spin-offean zuzenean edo zeharka parte hartzean, edo emaitzak transferitzeko kontratua indarrean egon bitartean, spin-offak konpromisoa hartuko du ETBren aurrean informazio betebeharrak hauek betetzeko, bere kontrol eta segimenduari begira:
 - a) Urteko kontuak urtero igortzea, bai eta bere jardueraren bilakaera jasotzen duen kudeaketa txosten bat ere, bereziki aipatuta finantza alderdiak, teknologiaren edo ezagutzaren garapena, eta langileen kontratazioa, ETBk ezarritako parametroetan oinarrituta.
 - b) Informazioa bidaltzea spin-offaren kapital sozialaren konposizioan edo EHUn partaidetza ehunekotan aldaketak eragin ditzaketen operazioen aurretik.
- 10.2 Spin-offak bidalitako informazioa ikusirik, EHUK, egoki iritziz gero, auditoriak eskatu ahal izango ditu, ekonomikoak nahiz teknologikoak.

III. KAPITULUA. EMAITZEN TRANSFERENTZIA

11. EHUren Emaizen Transferentziaren Kontratua

- 11.1 EHUren emaitzen gaineko erabilera eta ustiapen komertzialerako eskubideen transferentzia egingo da Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 36 bis artikuluan ezarritako prozeduraren eta baldintzen arabera.
- 11.2 Emaizen transferentziak berekin ekarriko du Transferentzia Kontratu bat formalizatzea, spin-offaren aldeko transferentzia arautuko duena, bai eta EHUK jasoko duen kontraprestazioa ere, Gizarte Kontseiluak ezarritako baldintzen arabera.
- 11.3 Emaitzak transferitzeko kontratuak kontuan izango ditu interes publikoa babesteko ahalmenak, Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legean aurreikusitakoak, bai eta era honetako kontratuetan ohikoak diren jardunbide egokiak ere. Bereziki, EHUK beretzat gordeko ditu 'ondasun hobeko' eskubidea, itzultze eskubidea (interes publikoaren aurkako ustiapen edo ustiapen faltaren kasuan) eta irakaskuntza eta ikerketa jardueretarako doako lizentzia bat.

IV. KAPITULUA. SPIN-OFFetik IRTETEA

12. EHUren irteteko eskubidea

- 12.1 Bazkideen Itunak jasoko du EHUren eskubidea spin-offeko akziodun izateari uzteko, bereziki kontratu betebeharrak jakin batzuk betetzen ez direnean, spin-offaren jarduera eteten denean edo jarduera hori EHUren printzipioen aurkakoa denean. EHUren irteerak Erregelamendu honetako 5. artikulua 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako prozedura jarraitu beharko du.
- 12.2 Gainera, EHUK beretzat gordeko du interes publikoa babesteko ahalmena, spin-offak bere betebeharrak betetzen ez dituenean; adibidez, transferitutako emaitzak itzultzea.

13. Spin-offaren partaidetzaren transmisioa

- 13.1 Zuzeneko parte-hartzearen kasuan, Gizarte Kontseilua izango da spin-offetako partaidetzak besterentzea baimentzeko eskumena izango duen organoa, Gobernu Kontseiluak proposatuta. Bi organoek beren eskumenak eskuordetu ahal izango dizkiete horretarako ahalmena duten batzorde delegatuei. Nahitaezkoa izango da ETBren Justifikatzeko Memoria, proposatutako transmisio baldintzak eta arrazoiak jasoko dituen.
- 13.2 Zeharkako parte-hartzearen kasuan, spin-offeko partaidetzak besterentzeari buruz erabakitze gaitasuna dagokio lotutako erakundearen administrazio

organoari. Erakunde horrek, dagokion erabakia hartu aurretik, aurreko puntuan aipatutako ETBren Justifikatzeko Memoria eskatu ahal izango du.

III. TITULUA. EHUko LANGILEAK SPIN-OFFetan PARTE HARTZEA

14. Spin-offean aritzeko baimena

- 14.1 EHUko ikerketako langileek baimena eskatu beharko dute unibertsitateak sortu edo partaidetutako spin-off batean aritzeko, lanaldi partzialeko lan kontratu baten bidez, Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- 14.2 EHUk emandako bateragarritasun aitortpenak ez du aldatuko ez lanaldia ez lan ordutegia, eta automatikoki baliogabetuko da sektore publikoan lanpostuz aldatuz gero.

15. EHUko langileak spin-offean parte hartzeko araubidea

- 15.1 EHUko langileek spin-offaren kapital sozialean eta administrazio organoan duten partaidetza egokituko da Administrazio Publikoko langileen bateraezintasunei buruzko araudira.
- 15.2 Arautegi honetan jasotako araubidearen arabera eraturako spin-offetan parte hartu nahi duten EHUko ikerketako langileek eskatu ahal izango dute ez aplikatzeko Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legearen 12.1.b eta d) artikuluetan ezarritako mugak, kontuan izanik Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 18.3 artikulua eta Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 61.4 artikulua.

16. EHUren emaitzak babestea

- 16.1 Spin-offetan diharduten EHUko kideek, titulu honetan aurreikusitako edozein aukerari helduz diotenek barne, unibertsitatearen eta haren ikertaldearen emaitzak babestu beharko dituzte, aintzat harturik Unibertsitatearen Jabetza Intelektualaren eta Industrialaren Araubideari buruzko Araudia eta erakundeak sinatutako akordio eta hitzarmenak.
- 16.2 EHUk neurriak hartuko ditu bere burua babesteko interes gatazketan.
- 16.3 14. artikuluan aurreikusitako araubideari helduz dioten EHUko ikerketako langileei dagokienez, ikertaldearen ezagutza babestu beharko dute, aintzat harturik jabetza intelektualari eta industrialari buruzko araudia, EHUn aplikatzekoak diren arauak eta sinatutako akordio eta hitzarmenak.

IV. TITULUA. EHUko KIDEEK EDO EGRESATUEK SUSTATUTAKO START-UPak

17. EHUren start-up deklarazioa

- 17.1 EHUko kide edo egresatu batek enpresa bat start-up deklaratzeari nahi izanez gero, eskaera aurkeztu beharko du dagokion campuseko Ekintzailatza Zuzendaritzan, ETBren webgunean eskura daitekeen inprimakia erabilita.
- 17.2 Enpresa sustatzaileek Ekintzailatza Zuzendaritzak eskatutako informazioa erantsiko diote eskaerari.
- 17.3 EHUren start-up deklarazioaren inguruan EHUko startup batzordeari erabakitzea dagokio. Hiru urte igarota, ebaluazioa berrikusiko da, start-upak hasierako helburuak betetzen jarraitzen duela ziurtatzeko.
- 17.4 EHUren start-up deklarazioak berekin ekarri dezake 18.2 puntuan aipatutako laguntza zerbitzuetako batzuei eskuratzea.
- 17.5 EHUren start-up deklarazioak 5 urteko gehieneko iraupena izango du. EHUk bertan behera utzi ahal izango du deklarazioa, noiznahi eta edozein arrazoiengatik.
- 17.6 EHUk egoki irizten dion dokumentazioa eskatu ahal izango die start-upei, haien bilakaeraren segimendua egiteko.

V. TITULUA. EHUren ETA ENPRESEN ARTEKO ELKARLANA

18. EHUren ekintzailatza prestakuntza eta laguntza programa

- 18.1 EHUk, spin-offak eta start-upak sortzen laguntzeko, ekintzailatza sustatzeko politika bat abiatuko du, eta politika horrek barne hartuko ditu ekintzailatza proiektuak laguntzeko eta enpresa horiei aholkularitza emateko programak.
- 18.2 Ekintzailatza Zuzendaritzek laguntza zerbitzu horiek koordinatu eta zerbitzu hauek emango dituzte:
 - a) Enpresen inkubazioa.
 - b) Negozio ereduari buruzko aholkularitza.
 - c) Kapitala eta dirulaguntzak bilatzeari buruzko aholkularitza, bai eta inbertitzaile pribatuen edo arrisku kapitalaren erakundeekin akordioak eta hitzarmenak negoziatzeari buruzkoa ere.
 - d) Prestakuntza.

19. EHUren inkubagailuan sartzeari

- 19.1 EHUren spin-offek eta start-upek unibertsitatearen inkubagailu batean sartzeko eskatu ahal izango dute, kasu bakoitzean ezarritako prozedura beteta.

- 19.2 Akordio bat sinatuko da horretarako, eta akordio horretan arautuko dira enpresek inkubagailuaren zerbitzu eta instalazioak kontratatzeke baldintzak eta aplikatu beharreko kontraprestazioak.

20. Lankidetzak kontratuak

- 20.1 EHUK eta spin-offek edo start-upek kontratuak sinatu ahal izango dituzte, ikertalde bidez edo, bestela, sailen edo ikerketa institutuen bitartez, Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 60. artikuluen babesean.
- 20.2 Kontratuak prestatzean, interes gatazkak saihesteko mekanismoak ezarriko dira, spin-offetan edo start-upetan interes ekonomikorik ez duten pertsonak presta eta esleitzen diren EHUK egin beharreko hitzarmen horiek, eta EHUn aldeko itzulkin egokiak ziurtatzeko hitzarmenetan.

21. EHUn Spin-off erregistroa

- 21.1 ETBa arduratuko da EHUn Spin-off erregistroaz, eta honako hauek jasoko dira erregistro horretan:
- a) EHUn spin-offa sortzeko edo aitortzeko onartutako edo baztertutako eskaerak.
 - b) EHUn spin-off partaidetza eskuratzeko eta eskualdatzea.
 - c) Spin-offak EHUn emaitzen gainean dituen eskubideak, kasuaren arabera, erabilera eta ustiapen komertzialerako.
 - d) EHUn partaidetza spin-offaren kapital sozialean eta administrazio organoan.
 - e) EHUn spin-offen helbide soziala.
- 21.2 EHUn spin-offek edo unibertsitateak berak Spin-off Erregistroari jakinaraziko diote aurreko puntuan aipaturiko gaietan izandako edozein aldaketa, informazioa eguneratze aldera.
- 21.3 Erregistroak eguneratuta edukiko du spin-offei buruzko informazioa, EHUK enpresa horiekin partaidetza edo kontratu lotura izan bitartean.

22. EHUn spin-offen irudi korporatiboa

- 22.1 EHUK, arautegi honetako araubidearen arabera eraturiko edo onartutako EHUn spin-offei, irudi korporatiboa eta "EHUn spin-off" izendapena erabiltzeko lizentzia emango die, erabilera ez-esklusibokoa, azpilizentzian eman ezin daitekeena eta transmiti ezin daitekeena, merkatuan haien buruak identifikatzeko helburu bakarrarekin.

- 22.2 EHUn spin-offek nahitaez erabili beharko dute irudi korporatibo eta izendapen hori, haien irudi korporatiboarekin batera.
- 22.3 Irudi korporatiboa eta izendapena erabiltzeak ez du inola ere adieraziko enpresak EHUn izenean ari direnik, ez eta EHUK enpresa horien jarduerak bermatzen dituenik ere.
- 22.4 EHUK noiznahi eskatu ahal izango du ez erabiltzeko artikulua honetan aipaturiko irudi korporatiboa eta izendapena. Kasu horretan, enpresak berehala utziko dio erabiltzeari.

23. EHUko ikasleak kontratatzea

- 23.1 Spin-offek eta start-uppek ahal duten guztia egingo dute EHUn ikasi duten ikasleak kontratatzeko, lan merkatuan sar daitezen.
- 23.2 Ondorioz, ahaleginduko dira, ahal dela, EHUn lan poltsetara jotzen, behar dituzten profesionalak aurkitzeko.
- 23.3 Halaber, saiatuko dira praktiketan dauden ikasleak hartzen, bai eta enpresaren arloan lanak eta doktorego tesiak egiten ari diren ikasleak ere.

24. Arautegi honetan aurreikusitako organoak

Arautegi honetan aipatutako organoetako edozeinek arautegian aurreikusitako edozein erantzukizun edo eskumen izateari uzten badio, EHUK erantzukizun edo eskumen horretaz arduratzeko izendatuko duen erakundeak hartuko du bere gain organo horrek Arautegi honetan duen posizioa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Aplikatu behar den araudira egokitzea

EHU saiatuko da, ahalik eta epe laburrenean, arautegi honetako xedapenak legezko araudiaren edozein aldaketetara egokitzen, bereziki bateraezintasunei eta enpresak sortzeari buruzko araudien kasuetan.

Bigarrena. Indarrean sartzea

Arautegi hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzean